

## **EDUKIEN AURKIBIDEA**

<b>1. Hasierakoak.....</b>	<b>1</b>
<b>2. Instalazioa.....</b>	<b>1</b>
<b>3. Erabilera .....</b>	<b>1</b>
<b>3.1. Hizkuntza aukeratzea.....</b>	<b>2</b>
<b>3.2. Itzulpen-aukerak.....</b>	<b>2</b>
<b>4. Desinstalazioa .....</b>	<b>9</b>



## IRUDIEN AURKIBIDEA

1. irudia. Pop-up menuko <i>Elhuyar EU/ES Hiztegia</i> aukeraren adibide bat.....	3
2. irudia. Kontsulta-leihoko <i>Esaldia aztertu</i> aukeraren adibide bat .....	5
3. irudia. Kontsulta-leihoko <i>Kontsultatu</i> aukeraren adibide bat.....	6
4. irudia. Elhuyar web guneko on-line hiztegiaren kontsulta-adibide bat.....	8
5. irudia. Elhuyar EU/ES Hiztegiaren kontsultarako laguntza eskaintzen duen fitxategia .....	9
6. irudia. Ordenagailuan instalaturik dagoen softwarea.....	10



## 1. Hasierakoak

Eskuliburu honetan Word testu-prozesadorean integratutako Elhuyar EU/ES Hiztegi elebiduna (Euskara-Gaztelania/Castellano-Vasco) kontsultatzeko modua azalduko dugu. Bertsio honetan integratutako hiztegia Elhuyar Hiztegi Txikia da.

Tresna honek euskarazko edo gaztelaniazko hitz batek beste hizkuntzan (hau da, gaztelaniaz edo euskaraz, hurrenez hurren) dituen itzulpenak edo 'ordainak' eskaintzen dizkio erabiltzaileari. Erabiltzaileak hitz hori testuan bertan hautatzeko edo kontsultaleiho berezian bilatzeko aukera izango du.

Tresna hau Windows 98/2000/XP/NT sistema eragilea instalatuta duten ordenagailuetan dabil. Hiztegi-kontsulta Microsoft Word 2000 edo Microsoft Word 2002 aplikazioan integratzen da. Internetera sartzeko, berriz, Internet Explorer instalatua eduki behar da, programa honek haren ezarpenak erabiltzen baititu.

## 2. Instalazioa

Elhuyar EU/ES Hiztegiaren plug-in-a testu-prozesadorean integratzeko, nahikoa da *setup.exe* fitxategian bi aldiz klik egitea eta, hortik aurrera, instalaziorako laguntzaileak ematen dituen argibideak jarraitzea.

## 3. Erabilera

Elhuyar EU/ES Hiztegia euskarazko eta gaztelaniazko hitzak itzultzeko da gai. Horregatik, testuko hitz baten ordainak eskainiko baditu, horren hizkuntzak bi horietako

bat behar du izan. Testu-prozesadorean, testuaren hizkuntza adierazi behar da lehenik, eta euskara edo gaztelania denean izango du gure tresnak itzulpenak emateko ahalmena.

Beraz, tresnaren erabilera azaldu baino lehen, testuaren hizkuntza aukeratzeko egin beharrekoak azalduko ditugu.

### 3.1. Hizkuntza aukeratzea

Dokumentu berri baten hizkuntza aukeratzeko, *Tresnak* menuko *Hizkuntza* → *Ezarri hizkuntza* aukeran *Euskara* edo *Gaztelania (tradizionala)*, bakoitza dagokion momentuan, aukeratuko dira.

Dagoeneko osatua dagoen testu baten edo hitz bakar baten gainean hizkuntza aukeratzeko, aurreko urrats berak egin beharko ditugu, testu osoa edo delako hitza hautaturik dugula.


### 3.2. Itzulpen-aukerak

Instalatu eta hizkuntza aukeratu ondoren, tresna honek bi erabilera-modu eskainiko dizkigu:

- *Idatzi edo irakurri ahala hitzaren kontsulta lasterra egitea*. Horretarako, hitzaren gainean kutsorea dugula, nahikoa da *Kontsulta EU/ES* aukeraren gainean sagua jartzea edo ALT+S sakatzea.
- *Kontsulta-leihoan sartzea*.


Jarraian bi modu hauek azalduko ditugu.

**Idatzi edo irakurri ahala hitzaren kontsulta lasterra egitea:** erabiltzaileak, irakurri edo idatzi ahala, une horretako hitzaren itzulpena jakin nahi duenean erabiliko du aukera hau. Horretarako, nahikoa da kurtsorea hitzaren gainean daukagula (edo hitza hautatuz) **Elhuyar EU/ES Hiztegia** menuko **Kontsulta EU/ES** aukeraren gainean sagua jartzea edo ALT+S sakatzea (ikus 1. irudia).:




### 1. irudia. Pop-up menuko **Elhuyar EU/ES Hiztegia** aukeraren adibide bat

Kontsulta azkarrerako erabiltzen den **Elhuyar EU/ES Hiztegia** menua mugikorra da, eta nahi izanez gero, Microsoft Word-eko menuaren alboan koka daiteke, saguarekin mugituz, modu honetan beste funtzioen ondoan geldituko delarik:



Nahi izanez gero, kontsulta azkarreko menu hau pantailatik ken dezakegu, eta goiko menutik aplikazioa erabili. Horretarako, **Ver --> Barras de Herramientas --> Elhuyar EU/ES Hiztegia** desaktibatu beharko da, gainean klik eginez. Modu berean, nahi izanez gero, berriro ere aktibatu daiteke pausu berbera jarraituz:




**Kontsulta-leiho zabaltzea:** idazleak irakurtzen edo idazten ari den hitzari buruzko informazio gehiago nahiko balu (ingurunea aztertu, adibideak...), aukera honetaz balia



daiteke (**Informazio gehiago** botoia sakatuz). Horretarako, Kontsulta-leihoan bi modutako kontsultak egin daitezke.


- **Esaldia aztertu** aukera: erabiltzailea lanean ari den hitzetik abiatuz, inguruneke hitzen itzulpenak aztertzeko aukera izango du, gezienez bitartez hitzez hitz nahiz esaldiz esaldi mugituz. Uneko hitza urdinez adieraziko da (ikus 2. irudia).



## 2. irudia. Kontsulta-leihoko **Esaldia aztertu** aukeraren adibide bat

- **Kontsultatu** aukera: modu honetan, edozein hitzen kontsulta egin daiteke, testu-koadroan hitza idatzi eta **Itzuli** botoia sakatuz. Erabiltzaileak itzulpenaren

noranzkoa (euskaratik gaztelaniara edo gaztelaniatik euskarara) aukeratu behar du (ikus 3. irudia).




### 3. irudia. Kontsulta-leihoko *Kontsultatu* aukeraren adibide bat

Bi moduotan, aztertutako hitzerako aurkitu diren lemak beheko zerrenda-laukian gordeko dira (aurkitutako lema-kopurua parentesi artean azalduko da). Lema bat aukeratu eta dagozkion kategoriak eguneratuko dira beheko zerrendan (kopurua ere parentesi artean agertuko da). **Ordainak** koadroan ageri diren edukiak hautatuta dauden lema eta kategoriari dagozkionak dira.

Kontsultatzeaz gain, aukeratutako ordaina testuan txerta daiteke. Horretarako, *Testura eraman* botoia sakatu behar da. Erabiltzaileak botoi hori *Esaldia aztertu* aukeran dagoela sakatuz gero, urdinez nabarmendutako hitzaren ordeztariko du ordaina; *kontsultatu* aukeran dagoela sakatuz gero, aldiz, aztertzen ari den hitzaren ostean ezarriko du.

Hitzari buruzko informazio gehiago lortu nahi bada, *Web* botoia sakatu eta Elhuyarren web gunera joan gaitzke. Word-eko testuan hitzik aukeratu ez badugu, gunearen orrialde nagusia ikusiko da. Bestela, hautatutako hitzaren informazio gehigarria ikustera bideratuko gaitu tresna honek. 4. irudian, esaterako, *harri* hitzaren 8. adieraren kategoria, ordainak, gaia eta adibideak ikus daitezke, baita azpisarrera batzuk ere.



#### 4. irudia. Elhuyar web guneko on-line hiztegiaren kontsulta-adibide bat

*Esaldia aztertu* aukeratik *Kontsultatu* aukerara aldatzeko nahikoa da kontsulta-leihoaren goialdeko bi hegaletan klik egitea.

Kontsulta-leiho honi buruzko laguntza nahi izanez gero, F1 sakatu behar da, kontsulta-leiho pantailan aktibo dagoela. On-line laguntza eskaintzen duen 5. irudiko fitxategia agertuko da orduan.




5. irudia. Elhuyar EU/ES Hiztegiaren kontsultarako laguntza eskaintzen duen fitxategia

#### 4. Desinstalazioa

Gure tresnaren funtzioak eta baliabideak Word testu-prozesadoretik kendu ahal izateko (menu-aukera berriak...), hauxe egin behar da:

- *Hasi* menutik *Ezarpenak* → *Kontrol-panela* hautatu
- *Gehitu/Kendu programak* aukera hautatu

- **Instalatu/Desinstalatu** fitxako zerrendan, egin klik bi aldiz “Elhuyar EU/ES Hiztegia” aukeran (ikus 6. irudia).



#### 6. irudia. Ordenagailuan instalaturik dagoen softwarea

Hori eginda, produktuak erabiltzen dituen hiztegi eta liburutegi guztiak gure sistematik ezabatu egingo dira.